

KOMUNIKAZIOEN ARLOKO BURUA

LANPOSTUAREN ZEHATZAPEN LABURRA

Bere arloko dimentsionamendua eta okupazioa kudeatzen ditu Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzan sortzen diren premiei ahalik eta modu hoberenean aurre egiteko, ohiko lanaren berezko eginkizun eta proiektu bakoitzari profil egokiena duten langileak esleitzeko ahalegina eginez. Era berean, bere arloko prebentziozko mantentze-lanen eta mantentze-lan zuzentzaileen azken erantzulea izango da, baita bere arloaren barnean nahitaezkoztat hartu diren instalazioen proiektuak, mantentze-lanak, kalitate-planak identifikatzearen, planifikatzearen eta haiek abian jartzea defendatzearen azken erantzulea ere.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

-Bere arloaren dimentsionamendua eta okupazioa gainbegiratu eta kudeatzea, arloko eguneroko jarduna dela medio (prebentziozko mantentze-lanak eta mantentze-lan zuzentzaileak) nahiz arloko buruak parte hartzen duen proiektuen ondorioz sortzen diren premia guztiei erantzuteko baliabideen optimizazioa bermatzeko.

-Baliabideen kudeaketa egitea, profilaren eta baliabideen trebetasun zehatzen eta proiektuaren berezko premien eta ezaugarrien artean ahalik eta komunztadura handiena bermatzeko.

-Arloko langileen prestakuntza-planak identifikatzea eta plan horiek abian jar daitezen defendatzea langile horien ezagutzak eta gaitasunak –Segurtasun Sailean aldatzen diren premiekin eta Sail horri zerbitzatzen dioten Informazioaren Teknologikoekin bat egitea ahalbidetuko dietenak– etengabe eguneratuta edukiko dituztela bermatzeko.

-Bere arloko prebentziozko mantentze-lanak eta mantentze-lan zuzentzaileak behar bezala egiteko eta kalitate-irizpideak betetzeko azken erantzulea.

Alorreko buruarekin elkarlanean aritzea aurrekontuak egiten. Kontratazio-prozedurak identifikatu, planifikatu eta jarraitzea, eta, ondoren, antzemandako premiei aurre egingo dieten barne-proiektuak abian jartzea (softwarea / hardwarea eguneratzea, makina berrien premia, eta abar).

-Alorreko buruari laguntzea zerbitzuen hornitzaileekiko harremana kudeatzen, eskatutako zerbitzuei buruzko aholku emanaz eta jasotzen diren zerbitzuen kalitateari buruzko informazioa emanaz.

-Bere arloko hainbat alderdiri buruzko Kalitate Planak (kudeaketa-tresnak, dokumentazio-tresnak, fluxuak baliozkotzeko prozesua, eta abar) identifikatzea eta plan horiek abian jartzearen alde egitea.

-Arloko organigraman bertan aldaketak egiteko premiak antzematea finkatzen diren teknologia berrietara egokitzeko pixkanaka.

-Proiektuburuaren berezko lanak egitea Urteko Ekintza Planak horrelakorik ezartzen badu.

-Batzorde Operatiboan parte hartzea honako hau lortzeko:

ITSPEaren edo UParen zirriborroa baliozkotu eta onartzea (Batzorde Estrategikoari dagokio azken onarpena egitea).

Urteko Ekintza Planeko ekimenen jarraipena egitea:

ITSPEko edo EPko ekimenen edo proiekturen batean irismena edo edukia berrikusteko proposamenak onartu edo ukatzea.

Proiektu bakoitzari lotutako lantaldeak zehaztea; horretarako, bere arloko langileen okupazio-maila eta gaitasun zehatzak ezagutu behar ditu, baita proiektu bakoitzaren problematika zehatza ere.

Lotutako arriskuak eta ekintzak identifikatzea.

Tartean sartuta dauden Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzaren arloak koordinatzea.

Barne-jarraipena egiteko bileretan sortutako desadostasunak konpontzea.

Langileen eta bere erantzukizunpeko arloetako berezko jardueren interesak zaintzea eta defendatzea.

-Batzorde Operatiboan adostutako erabakien berri ematea arloko langileei, baldin eta erabaki horiek atal desberdinetako jarduerari eta ekintzari eragiten badiete.